



Komunikazioa euskaraz

Erljio-askatasuna eta Jehovahen lekukoak

Jone AIZPURU ZUBIZARRETA
Ander AZKUE ERAUNSKIN

AURKIBIDEA: I. Sarrera.-II. Kontzientzia-askatasuna eta kultu askatasuna.-1. Kontzientzia-askatasunaren zuzenbidea: oinarri juridikoa konstituzioan. a. Askatasun erlijioso. i. *Uztailearen 5eko 7/1980 Lege Organikoa, Askatasun Erlijiosoari buruzkoa*; ii. *Estatu espainiarrak konfesio erlijiosoekin dituen akordioak*.-**III. Kontzientzia askatasunaren mugak.** 1. Askatasun-erlijiosoaren mugak.-**IV. Jehovahen Lekukoak.**-1. Kontzeptua.-2. Jatorria.-3. Jehovahen lekukoaren kongregazioen antolaketa.-4. Jokoan dauden ondasun juridikoak. a. Adingabeen kasu berezia.-5. Jehovahen Lekukoak eta odol transfusioak. a. Adostasuna emateko gaitasuna. b. Gaixoaren adostasuna. i. *Premiazko egoera*; ii. *Erantzukizuna*.-6. Odolik gabeko tratamenduen azterketa. a. Tratamendu hauekiko Jehovahen lekukoek duten posizioa.-**V. Ondorioak.-VI. Erreferentziak.**

I. Sarrera

Lan honen bidez, Espainiar Konstituzioan zein nazioarteko beste zenbait legeetan aitortutako erlijio-askatasun printzipioa aztertu nahi dut. Eskubideak berak joko handia ematen badu ere, lan honen bidez gainetik baino ez dut aztertuko, zehatzagoa den beste gai bat landu nahi baitut.

Esan bezala, Kontzientzia-askatasuna, eta batez ere erlijio-askatasuna, modu orokor batean aztertuko ditut, gero Jehovahen lekukoak eta odol-transfusioen kasuan murgiltzeko.

Globalizazioa hain zabaldua dagoen gizarte batean, iraganean ezagutzen ez genituen erlijio desberdinak ezagutu ditugu. Gure herrietan aitona-amonen garaietan ez zeuden erlijio desberdinak kokatu dira, eta egun sinesmen desberdineko pertsonak elkarbizitzan bizi gara.

Iraganean Euskal Herrian, eta batez ere Espainian, hain garrantzitsua zen erlijio katolikoak pisua galdu du gizartean. Askok dira laiko edo ateo bihurtu direnak. Beste aldetik, azken urteetako immigrazio tasa handiak, islama bezalako erlijioak bakoitzean presentzia handiagoa izatea eragin dute. Guztien artean aurkitzen da lan honen bidez aztertuko dudana Jehovahen lekukoaren kasu berezia.

Baina Jehovahen lekukoaren kasua aztertu baino lehen, komeni da guztioi aitortzen zaigun kontzientzia-askatasuna eta erlijio-askatasunaren eskubidea aztertzea.

II. Kontzientzia-askatasuna eta kultu askatasuna

Kontzientzia-askatasuna gizabanako guztioi aitortzen zaigun oinarritzko eskubidea da, zeinen bidez gizabanakoari uste sendo edo iritzi propioak edukitzeko ahalmena aitortzen zaion. Hau da, ahalmena ematen dio bere kontzientzia adierazi eta gainerakoei jakitera emateko.

Era berean, gizabanakoari bere kontzientziaren arabera jarduteko gaitasuna eman eta kontzientzia horren kontra jardutera behartua ez izateko askatasuna/eskubidea aitortzen dio.



Indarrean dagoen Espainiako Konstituzioan, kontzientzia-askatasuna ez da esplizituki hitzez hitz horrela aitortzen. Nahiz eta aitortpen juridiko jakinik ez izan, beste eskubide zein askatasun batzuetatik ondorioztatu daiteke.

Nahiz eta Espainiar Konstituzioan aitortpen juridikorik ez izan, nazioarteko araudian aitortzen da eskubide hau “pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunaren eskubide” bezala. Honako araudi hauetan jasotzen da:

- . *Libertad de pensamiento, conciencia y religión.*
- . Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, 18. artikulua.
- . Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Paktua, 18. artikulua.
- . Giza Eskubideen Europako Hitzarmena, 9. artikulua.
- . Oinarritzko Eskubideen Europako Gutuna, 10. artikulua.

Eskubide honek, Espainiar Konstituzioan aitortpen juridiko jakinik ez duela dagoeneko esan badugu ere, oinarri juridikoa nonbait kokatzekotan 16 artikuluan kokatu beharko litzateke. Artikulu honen arabera, gizabanakoei ideologia-askatasuna, erlijio-askatasuna eta kultu-askatasuna aitortzen zaie.

1. Kontzientzia-askatasunaren zuzenbidea: oinarri juridikoa konstituzioan

Kontzientzia-askatasunak Espainiar Konstituzioan dituen oinarrien artean, aipagarriena 16¹. artikulua da.

“1.- Gizabanakoen eta erkidegoen ideologia-, erlijio- eta kultu-askatasunak bermatzen dira, muga bakarra izanik adierazteko orduan, legean babesten den berri-ordena mantentzeko behar dena.

2.- Inor ezin da bere ideologia, erlijio edo sinesmena adierazten behartua izan.

3.- Sinesbide bat ere ez da Estatuarena izango. Herri-aginteeek Espainiako gizartearen erlijio-sinesmenak kontuan hartuko dituzte eta Eliza katoliko eta gainerako sinesbideekin dagozkien lankidetzaren harremanak izango dituzte.”

Artikulu hau aztertzeke hiru zati aztertu behar dira:

. Ideologia-askatasuna eta erlijio-askatasuna aitortzen dira, nahiz gizabanakoentzat nahiz komunitate edo elkarteentzat.

. Inor ezin da behartu bere ideologia, erlijio edo sineskera aditzera ematera.

. Inolako konfesiok ez du izango estatu-izaerarik. Nahiz eta tradizionalki estatu espainiarra konfesionala izan, egun estatu laikoa da, neutrala.

Artikulu hau oinarri hartzen badugu, ikusten da ideologia-askatasuna eta erlijio-askatasuna herritar guztioi aitortzen zaigun eskubide bat dela. Gure sinesmenen arabera jokatzeko eskubidea izateaz gain, ez daukagu gure ideologia, erlijio edo sineskerak aditzera emateko betebeharririk.

a. Askatasun erlijiosoa

Askatasun erlijiosoa, izaera indibidualeko eskubidea da; eta barne zein kanpo dimentsioak ditu.

Barne dimentsioaren arabera, pertsona batek egokiak iruditzen zaizkion sinesmen erlijiosoa izateko eskubidea dauka. Kanpo dimentsioak berriz, gainontzekoen askatasun publiko eta oinarritzko eskubideen errespetuari egiten dio erreferentzia, hau da, gainontzeko pertsonen sinesmenak errespetatu egin behar direla ulertzen da.

Aipagarria da baita ere, inolako konfesiok ez izatea estatu-izaera. Dakigun bezala, historian zehar Espainia estatu konfesionala izan da, eta orain gutxi arte kristautasunak izugarritzko pisua izan du.

¹ <http://www.euskalnet.net/jason/web/ek.htm>



Dena den, esan beharra dago Konstituzioko 16 artikuluan aitortzen diren eskubideek ez dutela kontzientzia-askatasunaren eduki guztia biltzen. Izan ere, beste eskubide eta askatasun batzuekin ere osatzen da, hala nola, hezkuntza-eskubidea, irakaskuntza eskubidea...

i. Uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa, Askatasun Erlijiosoari buruzkoa²

Konstituzioan aitortutako oinarritzko eskubideak Lege Organiko bidez garatuak izan behar dira. Espainian 7/1980ko Lege Organikoa da askatasun-eskubidea arautzeaz arduratzen dena.

Bere lehen artikuluetan estatuaren akonfesionalitatea azpimarratzen du.

Lege organiko honek, akordioen bidea jasotzen du estatua eta konfesio erlijiosoen arteko lankidetzaren harremanak bideratzeko aukera bezala. Dena den, konfesio erlijioso hauek inskribatuta egon beharko dute dagokion erregistroan.

ii. Estatu espainiarrak konfesio erlijiosoekin dituen akordioak

Estatu espainiarrak akordio desberdinak egin ditu konfesio erlijiosoekin. Lehena, erlijio katolikoarekin egin zuen. Erlijio katolikoa da Espainian jarraitzaile gehien dituen. Dena den, badaude beste hiru akordio ere, baina hauek gutxiengo erlijioekin egin ziren: ebanjelikoa, judua eta islama.

Eliza katolikoarekin 1979an sinatutako lankidetzaren akordioa izan zen lehena. Gero, 1992 urtean estatu espainiarrak beste hiru lankidetzaren akordio sinatu zituen eliza ebanjelikoen federazioekin, komunitate israeldarrekin eta komisio islamiarrekin.

Dena den, gogoan izan behar dugu estatu eta konfesio arteko lankidetzaren akordioek izaera juridiko desberdina dutela. Arau horiek estatuko arau bilakatzeko jarraitu den prozedura desberdina izan da: eliza katolikoaren kasuan, akordioa egin zen garaian ez zegoen 7/1980 Lege Organikoa eta nazioarteko tratatu izaera dauka. Gaintzeko hiru akordioen kasuan berriz, Gorte Nagusiak emandako lege arruntak dira.

III. Kontzientzia-askatasunaren mugak

Konstituzioak berak kontzientzia-askatasunari mugak ezartzen dizkio. Espainiar Konstituzioko 16 artikulua, ideologia- eta erlijio-askatasunaren muga legeak babesten duen ordena publikoa dela jasotzen du.

Erlijio-askatasunari dagokionez, Askatasun Erlijiosoari buruzko Lege Organikoko 3.1³ artikuluan jasotzen da zeintzuk diren legeak babestutako ordena publiko horren edukia, gizarte demokratiko batean.

Baina Espainiar Konstituzioak kontzientzia-askatasunari ezartzen dion muga, ez da bestelako oinarritzko eskubide batzuei jartzen dion berdina. Konstituzioko 20.4 edo 22 artikuluetan muga espezifikoa ezartzen dira oinarritzko eskubide batzuentzako. Berdina gertatzen da oinarritzko eskubideak arautzen dituzten nazioarteko tratatuetan ere.

Aztertzen diren sinesmenak zenbat eta sakonagoak izan, mugak ahalik eta murriztuenak izan behar dira, hau da, sistemaren oinarria babesteko beharrezkoak direnak baino ez dira kontuan hartuko.

² http://noticias.juridicas.com/base_datos/Admin/lo7-1980.html

³ Erlijio Askatasunari buruzko 7/1980 Lege Organikoko 3.1 artikulua: “*Erlijio- eta kultu-askatasunaren ondoriozko eskubideak egikaritzeko muga bakarra da enparauek askatasun publikoak eta oinarritzko eskubideak egikaritzeko duten eskubidea babestea, bai eta gizarte demokratikoaren esparruan legeak babestutako ordena publikoaren osagai eratzaile diren segurtasun, osasun eta moralitate publikoa babestea ere.*”



Ildo honetatik, Askatasun Erlijiosoaren Lege Organikoko 3.1 artikuluan jasotzen den erlijio-askatasunaren muga den ordena publikoak, honako hauek barnebiltzen ditu: gainontzekoen oinarritzko eskubideen egikaritzea eta osasun, segurtasun eta moralitate publikoak. Ulertzen da gainontzekoen oinarritzko eskubideak eta osasun, segurtasun eta moralitate publikoak erlijio-askatasunaren muga direla.

Ez dugu ahaztu behar oinarritzko eskubideak ez direla mugagabeak, beraz, eskubideei ezarritako mugak edo limiteak ezingo dira mugagabe izan.

Azken finean, kontzientzia-askatasuna ahal den eremurik zabalenean interpretatu behar da, eta mugak ahalik eta zorrotzenak izan beharko dira, *“in dubio pro libertate”* printzipioa ahaztu gabe.

1. Askatasun-erlijiosoaren mugak

Esan dugun bezala, Askatasun Erlijiosoaren Lege Organikoko 3.1 artikuluan, erlijio-askatasunaren mugak gainontzekoen oinarritzko eskubideen egikaritzea eta osasuna, segurtasun eta moralitate publikoak dira.

Lege bereko 3.2 artikuluan⁴ berriz, helburu erlijiosoak ez izateagatik bere aplikazio eremutik zenbait entitate kanporatzen ditu.

Erlijio-askatasunaren mugei dagokionez, aipatzekoa da *nuevos movimientos religiosos*, mugimendu erlijioso berriak edo sekten errealitatea.

Mugimendu hauek, planteamendu orokor gisa, izan dezaketen erlijio-izaera zalantzan jarri gabe, kontzientzia-askatasunaren esparruan kokatu daitezke. Beraientzako mugak aipaturikoak izango dira. Baina bereziki azpimarratu beharko da Zigor Kodeak ezarritako mugak.

Honako arazo hauekin lotu ohi dira mugimendu hauek:

. Erlijio-entitatearen nortasuna lortu nahi dute, honen babesean ekintza merkantil zein lukratiboak egiteko, eta baita zenbait delituren egikaritzea: estafa/maula, bidegabeko jabetzapena, zerga ihesa...

. Zenbait jarduera, nahiz eta ustez erlijiosoak izan, Zigor Kodearen arabera delitu dira: prosetismoa, sexu edo maitasun libre delakoaren bidez haurren prostituzioa edo sexu-askatasunaren urrapena.

. Teknika bezala erabiltzea: desbertsonalizazioa eta garun garbiketa.

Esan daiteke beraz, erlijio-askatasunaren mugak ordena publikoa eta gainontzeko gizabanakoen eskubideen egikaritzea direla. Bata zein bestea errespetatu egin behar dira.

IV. Jehovahen lekukoak

Behin kontzientzia-askatasuna eta horren barruan erlijio-askatasuna aztertu ondoren, erlijio jakin bat aztertzer pasako naiz. Hasieran esan dugun bezala, lan honen bidez Jehovahen Lekukoaren erlijioa aztertuko dugu, eta batez ere, odol-transfusioen inguruan sortzen diren gatazka, eztabaidak eta erantzukizunak.

⁴ Erlijio Askatasunari buruzko 7/1980 Lege Organikoko 3.2 artikulua: *“Lege honen babes-esparrutik at daude jarduera, helburu eta erakundeak, baldin eta lotuta badaude fenomeno psikiko edo parapsikologikoak aztertu eta horien inguruan saiakuntzak egitearekin, balio humanistiko nahiz espiritualak zabaltearekin edota bestelako helburuekin, horiek erlijio-belburuez bestekoak badira.”*



1. Kontzeptua

Jehovaren Lekukoak elkarte erlijioso kristaua da. Askok atez ate beren sinesmenak zabaltzen ibiltzeagatik ezagutzen dituen arren, beren erlijio zein sinesmenak haratago doaz.

Jesukristo itzuli dela eta horren ondorioz Armagedoia eta Mundu Ordena Berri baten atarian gaudela aldarrikatzen dute⁵. Erlijioak zenbait debeku ezarri dizkie sinesmendunei, besteak beste: ezin dute politikan parte hartu, ez dituzte odol transfusioak onartzen, ezin dute erlijio kutsua izan dezaketen edozein jai ospatu.

2. Jatorria

Gau egungo Jehovaren lekukoen historia aztertzeko XIX. mendearen amaierara jo beharko dugu. Garai hartan, Estatu Batuetan Biblia aztertzen ari zen ikasle talde txiki batek Idazkien azterketa sistematiko bat egitea erabaki zuen.

Euren azterketaren parte bezala eliza katolikoaren doktrina Bibliak esaten duenarekin alderatu zuten. Ondoren ikasi zutena zabaltzen hasi ziren eta gaur egun LA ATALAYA beza ezagutzen den aldizkaria argitaratu zuten Jehovaren erreinua adieraziz.

Ikasle horietako bat Charles Taze Russell zen. LA ATALAYA aldizkaria berak argitaratu bazuen ere, eta nahiz eta bera izan biblia irakastea helburu zuen mugimendu horren gidari horrek ez zuen erlijio berri baten sortzaile bihurtzen. Russell eta beste ikasleen helburua Jesukristoren ezagutzen berri ematea zen eta gertutik jarraitu nahi zuten lehen mendeko kristau kongregazioak ezarritako eredua. Hori dela eta, kristautasunaren sortzaile Jesusenez, Jehovaren lekukoek ere hau hartzen dute euren sortzaile bezala.

3. Jehovaren lekukoen kongregazioaren antolaketa

Kongregazio bakoitza adineko talde batek gidatzen du. Kongregazioak zirkuituetan banatuta daude eta zirkuitu bakoitza distrituetan banatuta dago. Zirkuitu bakoitzean hogeikongregazioa egoten dira. Aldi berean, distritu bakoitzean hamar zirkuitu egoten dira gutxi gorabehera. Hauek, superintendente baten menpe egoten dira. Azken hauek bidaiariak izaten dira eta denbora jakin batetik behin joaten dira ikuskapen lanak egitera.

Brooklyn-eko bulego zentraletik gidaritza eta instrukzio biblikoa ematen da gainontzeko Jehovaren lekukoen kongregazio guztietara.

4. Jokoan dauden ondasun juridikoak

Esan dugun bezala, Jehovaren Lekukoek bakoitzean presentzia handiagoa daukate gure gizartean. Horien inguruan bada azkenaldian prentsan ere agertu den kontu bat, odol transfusioak. Gatazka, norberaren bizitza eta sinesmen edo uste sendoen arabera jardutearen ondorioz sortzen da. Hemen sartzen da hain zuzen aurretik kontzientzia-askatasunaren inguruan azaldu dugun guztia. Gatazka intrapertsonal baten aurrean gaude, pertsona beraren ondasunak baitaude jokoan, bizitzarako eskubidea eta kontzientzia-askatasuna.

⁵ Jehovaren Lekukoen web orria: <http://www.jw.org/eu/>



Bizitzako eskubidea Espainiako Konstituzioko 15⁶ artikuluan pertsona orori aitortzen zaion oinarritzko eskubidea da. Kontzientzia-askatasuna, berriz, Konstituzioko 16. artikuluan aitortzen da. Artikuluaren lehen lerro-aldiaren arabera, ideologia-, erlijio- eta kulture-askatasuna bermatzen da, eta mugatzat ordena publikoa mantentzea ezarri da. Eskubide hau, Erlijio Askatasunaren Lege Organikoko 2.1 artikuluan ikusten den moduan, guztiei edo “*a toda persona*” aitortzen den eskubidea da.

a. Adingabeen kasu berezia

Adingabeen kasuan, gainera, babes juridikoa behar dutela ulertzen da. “*Convención de Derechos del Niño*” aztertzen badugu, bere 14.1 artikuluan, Estatutuak haurren pentsamendu, kontzientzia eta erlijio-askatasuna errespetatzera behartuta daudela ikusten dugu, baina gurasoen -zein ordezkari legalen- eskubide eta betebeharrak errespetatu behar dituzte.

Honekin lotua, jokoan sartzen den beste eskubidea pertsonaren duintasuna da, hau Konstituzioko 10⁷ artikuluan aurreikusten da. Aurrerago hobeto ikusiko badugu ere, esan beharra dut gai honen inguruan asko eztabaidatu izan dela.

5. Jehovahen Lekukoak eta odol-transfusioak

Zenbait kasutan, pazienteen gaixotasunak sendatzeko ezinbestekoa izaten da odol transfusioa egitea. Jehovahen Lekukoek, ez dute horrelakorik onartzen, beren erlijioak ezarritako presuntzioen aurkakoa baita odol transfusioak jasotzea. Tratamendu mediko bat jasotzeko, paziente edo gaixoaren adostasuna behar da, eta beraz, pertsona batek berak erabaki ahal izango du tratamendu medikua jaso nahi duen edo ez.

a. Adostasuna emateko gaitasuna

Erabaki hori hartzeko gaitasuna ez dago adin nagusitasunarekin, 18 urte izatearekin, lotuta. Mota honetako erabakiak hartzeko gaitasuna, adin txikikoen heldutasun mailarekin dago lotuta.

Pazientearen Autonomiari buruzko 41/2002 legean, esaten da, adin txikikoak 16 urte baino gehiago baditu eta gaia bada bera izango dela mediku tratamenduaren inguruan erabakia hartuko duena.

Hori dela eta, printzipioz, erabakia pazienteari dagokiola ulertzen dut, eta batez ere, 16 urte baino nagusiagoa bada. Berak ikusi beharko du jokoan dauden ondasun juridikoetatik, zeini ematen dion garrantzia. Hau da, berak bere sinesmen eta usteen arabera garrantzia zeini ematen dion ikusi behar du, bizitza edo kontzientzia-askatasuna.

b. Gaixoaren adostasuna

Esan dugun bezala, medikuek edo pertsonal sanitarioek, edozein interbentzio egiteko, pazientearen adostasuna edo baimena behar dute, hala esaten da behintzat “*Ley General de Sanidad*” Legeko 10. artikuluan. Adostasun hori informatua izan behar da, hau da, interbentzioari buruzko informazioa eman behar zaio pazienteari, gero honek, adostasuna

⁶ Espainiako Konstituzioa 15 artikulua: “*Guztiek dute bizitzarako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, eta inor ezin da inoiz tortura eta zigor edo tratu ez gizatiar edo apalesgarrien azpian jarri. Gerra garaietarako zigor lege militarretan xeda daitekeenetik kanpo, heriotza-zigorra indargabeturik geratzen da.*”

⁷ Espainiako Konstituzioa 10 artikulua: “*Gizakiaren duintasuna, berari datxerzekion eskubide zapalezkinak, nortasunaren garapen askea, legearekiko eta gainerakoen eskubideekiko begirunea, politika-ordenaren eta gizarte-bakearen oinarri dira.*”



emateko. Ezinbestekoa da medikuak pazienteari jaso behar duen tratamenduari buruzko informazio guztia ematea, gero honek, horren inguruko erabakia hartzeko.

Dakigunez, Jehovahen Lekukoek normalean ezetza ematen diote odol transfusioak jasotzeari. Hauek batzuetan beren borondatea erregistro berezietan inskribatutako dokumentu batean jasotzen dute, “*Documento de voluntades anticipadas*” edo “aurretiazko borondateen dokumentua” delakoan. Dokumentu horretan beren borondatea jasotzen da, eta adostasuna emateko unean gaitasuna galduko balute, dokumentu hori kontuan izango da.

i. Premiazko egoera

Dena den, premiazko egoeretan, medikuek *Lex artisa* jarraituz, pazientearen bizitza salbatzeko jarduten dute, eta horrelakoetan, adostasuna egon edo ez, erantzukizun penala izan dezakete. Beraz, denbora daukatenean, epaileari baimena eskatuko die.

Epaileek normalean baimena ematen dute, bizitza kontzientzia-askatasuna baino gorago dagoela edo garrantzi handiagoa duela kontsideratzen baitute. Honen inguruan, asko dira epaileek bizitzaren ikuspegi sakralizatua dutela diotenak. Hauen ustez, bizitza norberaren esku ez dagoen ondasun preziatuena dela kontsideratu dute epaileek, zein beste edozein eskubideren gainetik dagoen.

ii. Erantzukizuna

Medikuek, baimenik gabeko transfusioa egiten dutenean, erantzukizun penala izan dezakete, derrigortze edo hertsapenena. Medikuek erantzukizun penaletik salbuetsita geratzeko auzitegiak “*estado de necesidad*” edo premiazko egoera hartzen du irizpide. Hau da, salbatu nahi den ondasun juridikoa aztertzen da, aztertuz hori sakrifikatu nahi dena baino garrantzitsuagoa al den.

Gai honen inguruan asko eztabaidatu izan da. Batzuen iritziz, borondatez, askatasunez eta duintasunez bizi nahi den bizitza baino ezin izango da kontzientzia-askatasuna baino goragoko lerrunean kokatu. Hori ez da gertatzen Jehovahen Lekukoek kasuan, eta hauentzat, hiltzea duinagoa da, transfusioak beren duintasuna urratuko bailuke.

Esan dugun bezala, mediku eta epaileen jokaerak ikuspuntu juridikotik gaitzesgarriak dira. Ikusi dugun bezala, medikuek, baimenik gabe transfusioa burutzen badute, Jehovahen Lekukoak edo bere familiak derrigortze delitua lepora diezaiokie, gaixoaren baimenik gabe jardun duelako. Aldiz, pazientea den Jehovahen Lekukoa hilko balitz transfusioa ez egiteagatik, medikuek erantzukizuna izan dezakete *lex artisa* ez aplikatzeagatik.

Esan badugu ere, erantzukizun penal horiek ekidin asmoz, medikuak, transfusioa burutzeko epaileari baimena eskatu behar lioke. Honekin, lortzen dena, ikuspuntu juridikotik, erantzukizuna epailearena izatea da. Eta lehenago esan dugun bezala, normalean baimena ematen dute.

Gurasoen erantzukizunari dagokionez egoera aldatu egiten da. Gurasoak adingabearen tutore diren heinean, nolabaiteko babes jarduera burutu behar dute adingabearekiko, hau da, berekiko berme betebeharra izango dute. Lehenik gatazkan dauden interes edo ondasun juridikoen arteko ponderazioa egin beharko da.

Kasu honetan, gatazkan dauden interesak adingabearen bizitza eskubidea (EK 15 art) eta gurasoen erlijio eta sinesmen askatasuna (EK 16) dira. Gurasoei, beren sinesmenak alde batera utzita, transfusioa egiteko haurra konbentzitzea edo transfusioa egiteko baimena emateko eskatzen zaie. Eta hori, erlijio askatasunaren muinaren aurka doa.



6. Odolik gabeko tratamenduen azterketa

Gaur egungo medikuak erronka handi bat dute osasun arloko gai baten inguruan. Estatu batuetan Jehovahen lekukoak 500 000 baino gehiago dira eta hauek ez dituzte odol transfusioak onartzen. Lekukoen zenbatekoa eta hauekiko hurbiltasuna adierazten duten pertsona kopurua handitzen doa. Aurretiaz pertsona batek odol transfusioa ukatzen zuenean medikuek auzitegitara jotzen zuten euren iritzia medikuaren arabera egokiena zen moduan jokatu ahal izateko hauek baimena lortu nahian. Azken urteetan ordea joera hori aldatuz doala esan daiteke. Honek suposatu dezakeena da baimen informatuaren printzipio legala geroz eta gehiago onartzen ari dela.

Gaur egun hautazko kirurgia eta bestelako tratamenduetan bai Jehovahen lekuko adingabe nahiz adinez nagusikoetan transfusiorik gabeko tratamenduen zenbatekoa gora egiten ari da.

a. Tratamenduekiko lekukoek duten posizioa

Jehovaren lekukoek odol transfusioen aurka egotearen arrazoi nagusia da, pertsona hauek oso erlijiosoak izaten direla da eta aurkakotasun hori zenbait pasarte erlijiosotan oinarritzen dute. Pasarte horietan honako hau esaten da: 3 Bizi eta mugitzen den guztitik jan dezakezue; lehenago landareak bezala, den-dena ematen dizuet.

4 Baina ez duzue haragia odolarekin jango, odolean baitago bizia. (Hasiara 9:3-4); «Jangai den piztia edo hegaztia ehizatzen badu israeldarrak nahiz etorkinak, odolustu egingo du eta odola lurrez estaliko,

14 izaki ororen bizia odolean baitago. Horregatik agindu die Jaunak israeldarrei inolako izakiren odolik ez jateko, izaki ororen bizia odolean dagoelako; jaten duena herritik bota egingo dute. (Lebitarra 17:13-14); «Hilerokoa izanik, odoljariora duen emakumea zazpi egunez geldituko da kutsaturik; emakumea ukitzen duena kutsaturik geldituko da arratsa arte. 20 Hilerokoa izanik erabiltzen duen etzalekua nahiz eserlekua kutsatua gelditzen da. 21 Haren etzalekua ukitzen duenak arropak eta gorputza garbituko ditu eta kutsaturik geldituko da arratsa arte. (Hechos 15:19-21).

Artikulu hauetan esaten dena ez bada gai medikuen inguruan esaten ere, Jehovahen lekukoek ustean artikulu hauen arabera odol transfusioak, globulu gorriak onartzea, globulu zuriak onartzea eta plaketak onartzea debekatzen da. Ala ere Jehovahen lekukoek ez dute debekatzen modu absolutu batean albumina, globulina immunologiako eta hemofilia dutenentzako tratamenduak. Lekuko bakoitzak egin beharko dugu berari dagokion aukeraketa.

Lekukoek gorputzetik ateratzen den odola eliminatu egin behar dela uste dute. Hori dela eta ez dute onartzen ez beste pertsonen odola ez eurez aurretiaz emandako odola berriro euren gorputzean sartzea ere.



V. Ondorioak

Kontzientzia-askatasuna eta erlijio-askatasuna gizabanako guztioi aitortutako oinarrizko eskubideak dira. Espainiar Konstituzioan ez ezik, Nazioarteko zenbait hitzarmenetan ere aitortu eta babesten da eskubide hau. Muga desberdinak baditu ere, aipagarrienak ordena publikoa eta gainontzeko gizabanakoen oinarrizko eskubideen egikaritzea da. Hau da, gure eskubideak gainontzekoenak hasten diren puntuan amaituko dira.

Ikusi dugunez, horrelako kasu batean, jokoan dauden ondasun juridikoak norberaren bizitza eta uste edo sinesmen sendoen arabera jarduteko eskubideak dira. Eta garrantzia bietako zeini ematen zaion arabera, ondorioak zeharo desberdinak dira.

Modu batean edo bestean denok gure sinesmenaren arabera jarduten dugu. Askotan ez du oihartzunik izaten, jendeari berdin baitzaio elizara joaten garen edo ez, edo gure denbora librean errezatzen dugun edo ez.

Baina bizitza bezalako beste eskubide bat jokoan sartzen denean, egoera guztiz aldatzen da. Denok geure iritzia emateko eskubidea daukagula dirudi.

Hala gertatzen da Jehovahen Lekuko eta odol-transfusioen kasuan. Badakigu Jehovahen Lekukoak ez daudela odol-transfusioen alde, beren erlijioak debekatu egiten diela hiltzeko zorian egonda ere odol-transfusioak jasotzea.

Gerta izan da gurasoek beren seme-alaba edo beste senitarteko bat hiltzen lagatzea odol-transfusiorik ezin dituztelako jaso. Eta horrelakoetan gizartean iritzi desberdinak zabaltzen dira. Batzuen ustez guztiz errespetagarria da sinesmendun hauen erabakia. Beste batzuk berriz, ez dute ulertzen sinesmenak direla eta nola den posible hain urrutira iristea.

Laburbilduz, Konstituzioan zein nazioarteko zenbait arauditan ikusten dugun bezala, legez gure sinesmenen arabera jokatzeko eskubidea aitortzen zaigu. Horrek Jehovahen Lekukoei beren sinesmenen arabera jokatzeko ahalbidetzen die, eta aukera ematen die odol-transfusioak ez jasotzea erabakitzeko. Eta azken finean, erabakia hartu baino lehen, askatasun, eskubide eta sinesmenez gain, portaeraren ondorioak ere kontuan izan behar dira.

Horrelako egoera batean aurkitu baino lehen, beste irtenbide batzuk aurkitzen saiatu beharko ginatkeela iruditzen zait. Badaude tratamendu alternatibo batzuk, baina hauek izugarritzko kostua izaten dute. Honen inguruan ere beste gatazka bat sortu da, ea Gizarte Segurantzak gastu hauek bere gain hartu behar dituen edo ez.

Hori erabakitzeko Konstituzioko 9.2 artikulua kontuan hartu beharko genukeela iruditzen zait. Honen arabera, botere publikoek sortzen diren zailtasun edo traben gainetik oinarrizko eskubideak bermatu behar dituzte.

Hori dela eta, botere publikoak sinesmen erlijiosoekin bat datorren asistentzia sanitarioa jasotzeko eskubidea bermatu beharko lukeela ulertzen dut, beti ere, osasun publikoaren aurka ez badoa, *lex artis* errespetatzen bada eta kostu desproporzionatu bat ez baldin badauka.

Kasu honetan Jehovahen lekukoei buruz hitz egiten ari gara baina ezin da ahaztu eliza katolikoa alde batetara utziz beste motatako erlijio asko daudela estatuak guztiz baztertuta dituenak eta estatuaren onarpena ezinbesteko pausoa iruditzen zait erlijio hauen normaltasuna lortzeko, askotan ezezaguna eta gutxiengo batek jarraitzen duena ukatu eta gutxiestera jotzen baitu gaur egungo gizarte honek.

Beraz eta testu askotan erlijio askatasuna onartzen bada ere oraindik pausu handiak eman behar dira onarpen hori erabatekoa eta errespetuzkoa izateko bai Jehovahen lekukoek kasuan bai beste erlijio batzuen kasuan ere, beste herrialde batetik immigratutako pertsonen erlijioa esaterako.



VI. Erreferentziak

JEHOBAREN LEKUKOEN WEB ORRIA: <http://www.jw.org/eu/>

ERLIJIO ANIZTASUNAREN BEHATOKIA: <http://www.observatorioreligion.es/>

JEHOVAREN LEKUKOAK ETA TRANSFUSIOAK – Ana LETURIA irakaslearen txostena eta gure ikaskideek egindako txostena.

Auzitegi Konstituzionalaren 2002ko uztailaren 18ko sententzia

Youtubeko bideo bat, “La verdad sobre las transfusiones de sangre y los testigos de Jehová 1-3”

<https://www.youtube.com/watch?v=jsx7DOfSI7Q>

Circular MF Transfusiones 2012:

https://www.fiscal.es/fiscal/PA_WebApp_SGNTJ_NFIS/download/CIRCULAR%201-2012.pdf?idFile=7b9a2a61-9fd8-4422-9f76-cabeccc2961e

Convención Oviedo Protección DDHH en Bideomedicina

<http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1999-20638>

Objeción de Conciencia a Transfusiones de sangre

Espainiar Konstituzio euskaraz: <http://www.euskalnet.net/jason/web/ek.htm>

7/1980 Lege Organikoa euskaraz:

<https://sites.google.com/site/euskallegezalea/71980legeorganikoa,erlijio-askatasunarub>